

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



La Habana

Jon Martin
Etxebeste,
Mia Charro

GERO

24 orrialde

12 euro

Peru Abarka sariko irabazlea

Bertsolari trebea izateaz gainera, kontalari bikaina ere badela argi utzi du Jon Martin Etxebeste. *La Habana* narrazioarekin Peru Abarka lehiaketako bigarren edizioaren irabazle suertatu zen. Amerikako Estatu Batuek ezarritako blokeo-erengatik, beren premiei aurre egin nahian dabilen kubatarrek ditu protagonista kontakizunak, besteak beste, bezeroek gonbidatzen duten kopa bakoitzeko kobratzen duen emakume tabernaria, istorioaren narratzailea. Lagun batek izotzekoa dirudien euskalduna aurkeztuko dio, eta harreman horren gorakada eta ezinbesteko beherakada azalduko ditu kontakizunak.

Hala ere, Kubako hiriburuan gertatzen den amodio istorio hori benetan bizitzeko, ezinbestekoak dira Mia Charro *La Habana*-rako egin dituen marrazkiak. **I**

Aizkorriko inguruak

Sua argialetxeak plazaratzen duen *Euskal Herria* mendi, kultur, natura eta bidaia aldizkariaren azken zenbakian Gipuzkoa eta Arabaren elkargunean dagoen Aizkorri mendikateari bisita egiteko proposamena luzatzen zaio irakurleari. Egin ditzakeen ibilbide anitzten nondik norakoak, haien zailtasun mailak eta bidean aurkituko dituen aberastasunen berri eman dute horretarako. Aketegi da Aizkorriko mendirik garaiena, eta bere erpinetik oso gertu omen dago Mariren koba liluragarria ere, edo hori diote bertakoei behintzat. Baina are gorago igo daiteke bidaiaria, *Euskal Herria* eskaintzen dizkieten aire ibilaldiak eginez gero: globoan edo helikopteroan igoz. Oinez nahiago? Badago aukerarik, noski. Lapurdi eta Nafarroa Behereko lur eta tontorrei egin zeniezaieke bisita, esate baterako. **I**




Euskal Herria
Batzuen artean

SUA

132 orrialde

5,30 euro



La historia desconocida
del lino vasco

Jose Antonio Azpiazu

TARTALO

168 orrialde

15,60 euro

Hiru mendetan lihoak Euskal Herrian izan zuen garrantzia

Euskal Herriko historiari buruzko azterketetan, gutxi landu izan den gaia da Jose Antonio Azpiazu historialari eta antropologoak *La historia desconocida del lino vasco* lanean eskaintzen duena: XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan lihoak euskal gizartean izan zuen garrantzia. Egundokoa izan zen orduko euskal gizarte harremanetan eta ekonomian izan zuen eragina, batik bat euskal emakumeengan. Eta ez bakarrik ezkon-sarian hainbat eta liho pieza gehiago izan, orduan eta aberastasun gehiago erakutsi ahal zutelako. Dotearen kontuaz aparte, berealdiko garrantzia izan zuen lihoak euskal emakumeengan, beraiek produzitu eta lantzen zutelako, eta gizartean eragin eta ondorio gehiago izan zuena: beraiek saldu zuten! **I**

Tantak hezkuntza aldizkariaren 36.a

Tantak EHUKo hezkuntza aldizkariaren azken zenbakian *Kalitate Parametroak eta Ebaluaketa Ulibarri Programan* izeneko azterketaren ondorioak eskaini dituzte. 2005. urtean J. Inazio Markok zuzendu eta Iker Salaberriak eta Denis Elortzak ikertu zuten gai hori eta orain *Kalitate Programak eta Normalkuntza Programak ikastetxeetan: elkarrengandik ikasten. Ikerketa baten emaitzak* tituluarekin plazaratu dituzte ondorioak. Bestalde, Elena Herranek automatismoa eta psikomotrizitatea aztertu ditu haur hezkuntzan *Jauzika biru urterekin: Haur portaera psikomotorearen behaketa* lanean. Laura Elosuak berriz, *Nerabeen Lanbide-lebentasunak* azaldu ditu, J. Domingo Villarroelek informazioa eta komunikazio teknologiek eskaini daitezkeen didaktika berriak, eta Txema Preciadok *Euskal ikusteko era ez ezik, koloreen artean ere badago bazterreraturik* lana. **I**



Tantak
Batzuen artean

EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEA

124 orrialde

7,81 euro



Tiderrekin tea hartzen

Mikel Murua,
Julen Tokero

ELKAR / KATXIPORRETA

36 orrialde

7,35 euro

Familiak Milakolore bildumako bi liburu

Egungo gizartean elkarbizitza eredu ugari daudela-eta, Pirritx eta Porrotx pailazoek adopzioa laguntzeko Ume Alaiak elkarteak egindako eskaerari erantzun zioten. Haurren artean hedatu ohi den familiari buruzko eredu tradizionalaz hausnarketa egiteko eta hurrei beste molde batzuk aurkezteko premiak bultzatu zituen horretara. Geroztik lanean dabil-tza *Familiak Milakolore* bilduma hedatzen, Elkar argitaletxeko Mikel Murua eta bere istorioak irudikatzen dituen Julen Tokeroekin batera. Bidaide dituzte halaber Ume Alaiak, Gehitu, Agipase eta Beroa elkarteak. *Tiderrekin*

tea hartzen da egitasmoaren azkenaurreko emaitza, basamortua ezagutu nahi duen neskatoaren istorioa. ■

Pakito izurdea eta mutiko nikaraguarra

Nikaraguatik Euskal Herrira amarekin batera etorri beharrean izan zen mutikoa da Kintxo Barrilete, bere kometarekin batera Donostiako kaira Pakito izurdea ikustera egunero joaten den mutikoa. Haur honek asko ikasteko asmoa du, bere herrira itzultzean mediku ona izateko. Horrela ez baita beste inor bere lagun Robertito bezala hilko, herria Nikaraguan pobrezian bizi delako eta mediku gutxi dagoelako. Pakito izurdeak kontsolatuko du Kintxo, eta Pirritx eta Porrotx pailazoen lagun ere egingo da. Desager-tzen den arte. ■

Agur Pakito!

Mikel Murua,
Julen Tokero

ELKAR

36 orrialde / 7,35 euro



JOSU ZABALETA

«Harreman estu eta aldi berean liskartsua dute. Hortik tragedia»

Aurkeztu ezazu euskaratu duzun lana.

Ez dakit argumentua aurreratu behar den... Esan daiteke oso nobela hotza dela. Gauzak ia-ia modu mekanikoan gertatzen dira. Baina aldi berean oso geldiro irakurtzeko lana ere bada. Uste dut nahita egin zuela Yourcenarren prosa oso trinko batean, irakurlea geldiro joan zedin irakurtzen. Gaia amodio-gorrotzoko boterea da, ez konprometitu nahi izanezko egoera bat, azkenean tragedia bihurtuko dena. Eta tragedia, nolabait inguruak ematen du, liburuaren azalean agertzen da: jauregi desegin bat, momentu gogor batean, gerra eta tiro hotsen artean. Giro horrek sortzen du tragedia, bai; baina era berean tragedia sortu, protagonistek sortzen dute, giro horrek ia axola ez balie bezala.

Zerk bultzatzen du nobela hau itzultzeraz?

Neronek proposatu nien editoreei itzultzea, esanaz: Yourcenar gustatzen zait, besteren artean, baina liburu hau asko gustatu zait tamainaz, trataeraz eta baita guretzat ere, gaur egungo egoeraz pixka bat pentsatzeko; ze beharbada ez litzateke ikaragarri zaila izango gure azkenengo hogeitau urteotako historian honen antzeko zerbaite aurkitzea.

Protagonistek buruz, zer azalduko zenuke?

Anai-arreba pare bat eta kontalaria dira. Hiru. Nobelan ez da esaten, baina kontalaria homosexuala da inondik ere; bere burua erruki gabe aztertzen duena; azterketa horretan bere buruari gezurrak kontatzen dizkio, besteek ere kontatzen dituzte gezurrak... Hau da, Marguerite Yourcenarren jakin izan du islatzen pertsonaia bat bere buruari buruz esaten dituen egi eta gezurrekin.



ZALDI ERO

Marguerite Yourcenaren *Le coup de grâce* euskaraz

Erremateko tiroa da Marguerite Yourcenarren euskaratutako laugarren lana.

1903an Bruselan

jaio arren bizitzako tarterik handiena –1987an hil artekoa– AEBetan igaro zuen idazleak. Aurretik euskaratutako lanak *Hadrianoren oroitzapenak* (1951), *Alexis* (1929) eta *Ekialdeko kontakizunak* izan ziren. Frantziako Akademiako lehen emakumea izan zenaren ezaugarriarik nabarmena, bere idazlanetan agertzen zuen indarra izan zen. Haren nobelak irakurritako inor gutxi sentituko da epel narrazio horien aurrean. Josu Zabaletak euskaratu duen *Erremateko tiroa*, 1939an argitaratua, intentsitate horren adibide garbia da. Lehen Mundu Gerra bukatzeaz eta Sobiet Batasuneko iraultza hasi berri zenean kokatzen da istorioa. Hiru gazteren arteko harreman suhartsuetan dagoen botere erlazioari buruzko lana da. Yource-

egileari galdezka



Erremateko tiroa

Marguerite
Yourcenar

ALBERDANIA

106 orrialde

15,50 euro

nar berak hitzaurrean dioenez, benetako gertakizun batean oinarritua dago. *Bere burua eskaintzen duen neska eta aintzat hartzen ez duen mutilaren anekdotaz harago, estualdi berberetan eta arrisku berberen mende dauden hiru pertsonaren arteko izuera berdintasun hori, patu-elkartasun hori da nobelaren gai nagusia. Aurreneko orrialdetik iragartzen zaio irakurleari gertatu behar duen tragedia. ■*